

Joxe Azurmendi, Mendebaldearen gainbehera eta Gaza

«Non datza erabakigarriki nire balioa – nire existentzia hutsaren, kontzientzia hutsaren balioa?», galdetzen digu Joxe Azurmendik *Azken egunak Gandiagarekin* (2009) liburuan. Horixe ez diote indibiduoari gizarteak, historiak, eta abarrek ematen, baizik eta «bera horrela izate hutsagatik, bere zereginik gabe, hain zuzen kontra bai gizartearen eta bai gizadiaren historia faktikoarekiko ere, da» kontzientzia hori. Erlijioak, Jainkoaren seme-alaba garelako, edo Kantek, moralitatearen iturri garelako, indibidua sakratua dela ulertu dute. Hortaz:

[G]izaki norbanako edo pertsonaren duintasunaren ukiezintasun horren inspirazioa erlijiotik hartu da. [Giza eskubideen] Deklarazioaren zirriborroak gizon-emakumearen ‘sanctity’ (ukiezintasuna) eta ‘ultimate value’ (balio gorena)z hitz egiten zuen. Azkeneko erredakzioan, santutasuna ezabatu eta (haren baliokidetzat orde!) ‘dignity’ ipini da.

Deklarazioaren hitzaurrean, gizakiaren oinarritzko eskubideetan dugun sinemenaz hitz egiten da. Beraz, azken instantzian, «giza duintasunaren ukiezina fedea» da, ez «esperientziako datua, enpirikoa, [...]», ezta arrazoimenak ezbaigabeki oinarritu ahal duen printzipioa ere. Giza duintasunaren ukiezina fedea eta desira da» (*ibid.*).

Zer gertatu da ondoren giza duintasun horrekin? Geroxeago haren oinarria munduko estatuen biltzar baten deklarazio juridiko batean bildu dela. Arrazoizkotasun unibertsal baten ordeztan, berme juridikoa eman zaio fede horri. Nazio Batuen Erakundeko estatu sinatzaileak geratu dira duintasun horren bermatzaile gisa, azken arrazoi eta fundamentu. Hain zuzen, Auschwitz diseinatu, Afrikako sarraski kolonizatzaile guztiak egin, torturak sistematikoak burutu eta orain Gazako genozidioa bururaino eraman edo beste alde batera begiratzen duten horiek berak.

«Zertan ote datza, inongo Estatuak ez Nazio Batuk eman ahal didan nire duintasuna, balio absolutua? Estatuak berak oso-oso erlatiboak

baino ez baitira» (*ibid.*). Giza eskubideen funtzioa Auschwitz ondotik gehiengoaren edo haren forma hartzen duen estatuaren arrazoi arriskutsu eta tiranikoak geldiaraztea izan da. Iraultza Frantsesaren ondorengo 1793ko giza eskubideen aldarrikapenaren 35. artikuluan esaten da espresuki: «Gobernuak herriaren eskubideak zapaltzen baiditu, altxamendua herriarentzat eta herriaren edozein zatirentzat eskubiderik santisimoena eta obligazio bazterrezina da» («*Quand le gouvernement viole les droits du peuple, l'insurrection est, pour le peuple et pour chaque portion du peuple, le plus sacré des droits et le plus indispensable des devoirs*»). Giza eskubideak estatu ahalguztidun eta tiranikoaren aurkako txerto bat izan dira, Azurmendiren hitzetan. Herriaren altxamendua baimentzen eta obligatzen zutenak. Herriaren parte batena, noski: frantsesak konturatuak baitziren iraultzak ez dituztela ez estatuak ez gehiengoak egiten.

Giza duintasuna estatuaren kartzelan sartu eta bertan gatibatuz, hortaz, gizakia eta haren duintasuna estatuaren pean, atzaparretan, iltzaturik gelditu da. Orain estatuak du soilik biolentziaren monopolioa, herriek ixil-ixilik 'demokraziara' eta estatu-arrazoiaren 'biolentziara' tolestu behar dute. Gehiengoaren izenean egin daitezkeen sarraskiak geldiarazteko sortua izan dena, beraz, gehiengoaren izenean egingo diren sarraski berriak oinarritzeko eta justifikatzeko tresna bihurtu da (Auschwitz, Gernika, Irak, Palestina...). Kapitalismoan eta egungo liberalismoan absolutua eta unibertsala dena gutzia baita, ez giza duintasuna.

Azurmendiren ondorioa zera da: orain bai, estatua da enpirikoki egon diren eta egongo diren Auschwitz eta Gazako zerrenda guztien oinarria.

Gizona mixerable da
gizon izaten hasteko
eskubideen deklarazio bat behar badu.

Prometeo mixerablea poemaren azken aldeko hitzak dira aurrekoak (*Hitz berdeak*, 1971, 165. or.). Mendebaldearen egitura juridiko, politiko eta moralen krisi erabatekoa haren sustraietan dagoela adierazten digute hitzok. Eta genozidioak ahalbidetzen dituen giza eskubideen egitura guztia birpentsatzeko garaia dela ondorioztatzen dugu guk gaur. Azurmendiren modernitatearen kritikak lagun gaitzake bide horretan.